



AKTA

Aiarako Kuadrillako **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko **ohiko bikurakoa**.

2021eko AZAROAREN 26a

Laudioko Udalaren udaletxeko **osoko bilkuren aretoan, 13:06** direnean, **ohiko bilkurari** hasiera eman zaio, **lehen deialdian, Encina Castresana Astarloa Kuadrillako Presidentea** buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak bertaratuta. Gianfranco Ghirò Alonso jauna, behean sinatzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Montserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)



Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute honako batzarkide hauek:
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)

Marquinez Blanco andrea 13:30 direnean bertaratu da, aztergaien 8. puntua jorratzen ari zirenean.

Kuadrillako Presidente andreak hasiera eman dio bilkurari, **lehenengo deialdian, 13:06 direnean**, horretarako behar besteko quoruma badagoela egiaztatu ondoren eta Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua, 46.2.c artikuluar dagokionez) 25. artikulua xedatutakoari jarraituz, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, besteak beste, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, **lehenengo deialdian** aldatutakoak xedatutakoari jarraituz ere, eta gai-zerrenda aztertzeari ekiteko agindu du.

Gai-zerrendarekin hasi aurretik, batzarburuak jakinarazi du EAJ/PNV biltzarkide-taldeak gai-zerrendako hamargarren puntuari buruz aurkeztu behar zuen mozio baten kopia bidali zaiela batzarkideei posta elektronikoz baina mozioa ez dela aurkeztuko.

1.- LAUDIOKO UDALAK BESTE BATZARKIDE BAT IZENDATZEA, IZENDAPEN-AGIRIAK AURKEZTEA

Urriaren 27an, Laudioko Udalak urriaren 25ean egindako osoko bilkuran batzarkide berria izendatu izanaren jakinarazpena jaso zen. Batzarkide hori **AITOR BURGOA MARTÍNEZ** izango da, EH-BILDU talde politiko batzarkidekoa (JOSE MARÍA GUTIÉRREZ ANGULOren ordez arituko da)

2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, azter dadin, eta, alegaziorik egon ez denez, aho batez ERABAKI DA onestea.

3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2020ko KONTU OROKORRA

Bilkuraren deialdiari II. eta V. arteko eranskinak erantsi zaizkio, 2020ko Kuadrillako Kontu orokorrari buruzko dokumentazioa eta izapideak jasotzen dituen.

Presidente andreak jakinarazi du Aiarako Kuadrillako OGASUN, FINANTZA, AURREKONTU, SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU BERRITZE ETA



TURISMOko Informazio-Batzordeak 2021eko ekainaren 21ean egindako bileran aho batez onartu zela 2020ko Kontu Orokorraren aldeko irizpena.

Ez da eztabaidarik sortu eta gehiengoz **ERABAKI DA**, honako **ERABAKI** hau hartzea, aldeko 24 botorekin (EAJ-PNV 12 boto, EH-BILDU 9 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK 2 boto, eta AIARA BATUZ boto 1), eta 2 abstentziorekin (OMNIA boto 1 eta OKONDO AURRERA boto 1):

BETE DIRA KUADRILLAREN 2020ko KONTU OROKORRAREN onespenezko prozedurarako ezarritako izapideak, Arabako Toki-Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

IKUSI DA 2020ko ekitaldiaren Kontu Orokorrak Toki-Erakundearen kontabilitateari buruzko instrukzioak ezarritako dokumentuak jasotzen dituela, 56/2015 Foru Dekretuaren bidez, azaroaren 3an diputatuen kontseiluan onetsi zena.

IKUSI DA Kuadrillaren 2020ko Kontu Orokorra aipatutako 3/2004 Foru Arauaren eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenen arabera egin da, honako izapide hauek betez:

LEHENENGOA.- Kontu Orokorra onartzeko espedienteak izapide hauek bete dituzte:

- 1.-Arloko Informazio-Batzordearen txostena.
- 2.- Jendaurrean jartzea, 15 egunez, Kontu Orokorra eta Kontuen Batzordearen txostena, ekainaren 29an 71. zenbakidun ALHAOn argitaratu zena.
- 3.-Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egon ez dela dioen ziurtagiria.
- 4.-Aurrekoa ikusita, Kontu Orokorra Kuadrillako Batzarrari aurkeztuko zaio, onetsi dezan.

BIGARRENA.- Azaldutakoa ikusita, Aiarako Kuadrillaren 2020ko Kontu Orokorra onetsi egin da.

HIRUGARRENA.- Kontu Orokorra onetsi ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku geratuko da, berariazko araudiak ezartzen dituen baldintzetan.

LAUGARRENA.- Era berean, Kontu Orokorrak Ondarearen alta, baja eta mugimendu guztiak jasotzen ditu, eta beraz, Toki-Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 31. artikuluan aipatzen den inbentarioa zuzendu ahal izango da.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2022KO AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA.



Batzarraren deialdiari atxiki zaizkio VI. eta VIII. arteko ERANSKINAK, 2022ko aurrekontuen aurreproiektuari buruzko dokumentazioa eta izapideak jasotzen dituztenak.

Presidente andreak jakinarazi du OGASUN, FINANTZA, AURREKONTU, SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU BERRITZE ETA TURISMOko Informazio-Batzordeak 2021eko azaroaren 18an egindako bileran 2022ko aurrekontuen aurreproiektuaren aldeko irizpena adostu zela gehiengoz, aldeko 6 botorekin: EAJ/PNV 3 boto, EH-BILDU boto 1, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK boto 1 eta AIARA BATUZ boto 1, eta OKONDO AURRERAREN abstentzio-boto 1.

Ez da eztabaidarik sortu eta gehiengoz, **ERABAKI DA**, honako **ERABAKI** hau hartzea aldeko 24 botorekin, (EAJ-PNV 12 boto, EH-BILDU 9 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK 2 boto, eta AIARA BATUZ boto 1), eta 2 abstentziorekin (OMNIA boto 1 eta OKONDO AURRERA boto 1):

IKUSI DA arloko teknikariak 2022ko ekitaldirako aurkeztutako aurrekontuen aurreproiektua.

LEHENENGOA.- 2022ko Aurrekontuari hasierako onespina ematea, LAU MILIOI BOSTEHUN ETA BERROGEITAZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOKO (4.547.984,70 €) gastuekin eta diru-sarrerekin.

BIGARRENA.- Presidente andreari eskatzea egin beharreko izapideak egin ditzala, behin betiko onets dadin.

5.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Presidente andreak jakinarazi du Aiarako Kuadrillako GIZARTE GAIETAKO, BERDINTASUNEKO ETA KULTURAKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2021eko azaroaren 17ko 14:00etan egindako ez-ohiko bilkuran aho batez onetsi zela honako adierazpen proposamen hau:

AZAROAREN 25erako ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO 2021eko EGUNA DELA-ETA

2003an emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak biltzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 ume hil dituzte Euskal Herrian. Onartu ezin den kopuru horren atzean izenak eta bizitzak daude. Eten dituzten bizitza-proiektuak. Gogoan hartu nahi



ditugu bereziki Erika Tavares, Conchi González, Aintzane Pujana, María Pilar Berrio Jiménez eta Biarritzeko 75 urteko hiritarra. 2021ean hil dituzte denak.

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeengan beldurra sortzeko erreminta indartsua da, indarrean dauden arauak aurre egin ez diezaieten eta eralda ez ditzaten. Beldur-erreminta hori emakumeen aurka erabiltzen da zuzenean, baina baita bere inguru hurbilenaren eta maiteenaren aurka ere, min handiagoa eragiteko. Kalkuluen arabera, EAEn bikotekidearen edo bikotekide-ohien indarkeria jasaten duten hamar emakumetik seik adin txikiko seme-alabak dituzte, eta horiek ere biktima bilakatzen dira.

Indarkeria bikarioa deritzona, hirugarren batzuek tarteko, emakumeari harik eta min eta kalte psikologiko larriena eragiteko indarkeria da. Ankerkeria maila gorenera iristen da hirugarren horiek hilda edo erailda (seme-alabak, aita, egungo bikotekidea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenak xedatutakoa aplikatuta, kasu horiek ere genero-indarkeriaren beste adierazpidetzat jotzen dira, seme-alabei eragindako minaren ondorioz, erasotzaileak emakumeei eragiten dizkien tratu txarren transmisio kate bilakatzen baitira umeak.

Azken lege-aldaketetan jasotzen da figura hori, bai adin txikiko biktimak ulertzeko moduari dagokionez, eta bai ezarri beharreko babes neurrien hedapenari dagokionez ere. Oraindik ere genero-indarkeria ukatzen duten diskurtso eta iritziei adi egon beharra dago, seme-alabek kasu hauetan duten arriskua gutxien baitute eta zalantzan jartzen baitituzte indarkeria mota honi aurre egiteko baliabide juridikoak. Planteamendu horiek biktima bihurtzen dituzte berriro adin txikikoak zein emakumeak, bere testigantza auzitan jartzen dute, eta guraso-ahala jartzen dute emakumeen eta adin txikikoen segurtasunaren eta bere onera itzultzearen gainetik.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki egikartzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak emakume izateagatik bakarrik, kontrolatzeko, hertsatzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta "ez direla gertakari isolatuak", egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotenak baizik, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Hori dela-eta, Aiarako Kuadrillak honako konpromisoak hartu ditu:

- Aiarako Kuadrillak ez du murrizketarik egingo 2022ko berdintasuneko aurrekontuetan. Berdintasun-atalak bermatzeko eta indartzeko konpromisoa hartu du.
- Indarkeria bikarioa bistaritzen laguntzea eta behar bezala artatzea. Bestek beste, zenbait indarkeria mota jasan dituzten haur biktimak eta biolentzia matxistako biktimak, biktimen koordinaziorako eta arretarako protokoloetan txertatuta eta eguneratuta, Istanbulko Hitzarmenak eta Kuadrillaren protokoloak jasotzen dutena betez.
- Udal-zerbitzuen bidez eta beste eragile (hezkuntzakoak, osasungintzakoak, poliziakoak, etab.) batzuekin lankidetzan indarkeria matxistaren biktimen hautemate eta esku-hartze goiztiarrean laguntzea, eta adin txikikoak haien kargu dituzten emakumeen eta erasandako beste pertsonen beharrei eta egoerei



erantzutea. Horrenbestez, protokoloaren jarraipena egiteko mahaian berariaz jorratuko da adin txikikoen gaia.

-Indarkeria matxistaren biktima izan diren adin txikikoen esku-hartze eta babes-prozesuak hobetzea, bere eskumenen esparruan, ikuspegi feminista izango duen hurbilketa interseksional, oso eta holistiko batetik.

-Biktimen eskubideak eta ahalduntzea jartzea neurri guztien erdigunean eta artatze osoan laguntzea prozedura judizialarekin duen inplikazio maila edo lankidetzatza gorabehera.

-Kuadrillako langileen berdintasunerako prestakuntza sustatzea, batez ere, emakumeen aurkako indarkeriari zuzenean erantzuten dioten langileena, genero eta giza-eskubideen ikuspegitik.

-Aiarako Kuadrillak hainbat esparrutara zuzendutako prebentzio- eta salaketa-kanpainak jarriko ditu abian (komunikabideak, enpresak, eskolak...), eta duen eragina ebaluatuko du.

-Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako herri-itun bat lortzeko, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkakoa, herritar guztien jarrera aktiboa behar baitugu indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortzeko.

- Aiarako Kuadrillak konpromisoa hartu du udalerriko mutilei eta gizonei zuzendutako ekintza bereziak abian jartzeko, besteak beste, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak eta rol sexistak gainditzeko estrategiak eta parekotasuna lantzeko, bai eta horretarako programa espezifikoak aktibatzen ere.

- Erakunde honek borroka feministarekiko konpromisoa berretsi nahi du, indarkeriarik gabeko gizarte demokratikoa eraikitzen bide eta tresna nagusi gisa.

Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko eta arreta emateko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten Aiarako Kuadrillak Emakumeenganako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela-eta deitutako mobilizazioekin.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) eskerrak eman ditu adierazpenari egindako ekarpenengatik, eta kontzentrazioa bezperan izan zenez, pozik agertu da lortutako adostasunagatik.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du espero duela egunen batean adierazpen horiek egin beharrik ez izatea, eta berretsi du positiboa dela lortutako adostasuna.

Gomara Picaza andreak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) aurtan indarkeria sexistaren biktima izan diren bost emakumeen izenak eman ditu. Horrez gain, hainbat datu eman ditu, tartean Euskadin eta Nafarroan indarkeria matxistaren salaketak



ugaritu egin direla. Indarkeria matxista identifikatzen jarraitu behar da, eta gure gizartean errotuta dauden ohitura batzuk desagerrarazi. Baliabide publiko eta pribatuak aktibatuta behar dira gaitz honen aurka borrokatzeko. Sare sozialetan eta beste espazio publiko batzuetan emakume feministei eraso egin zaiela salatu du, eta egiten ari diren lana eskertu nahi die.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) adostasuna eskertu du eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzen jarraitu behar dugula adierazi du.

Ondoren, adierazpenaren konpromisoak irakurriko dira.

Ez da beste eztabaidarik sortu, bozketa egin da eta aho batez **ERABAKI DA**, honako **ERABAKIA** hartzea:

LEHENENGOA: Emakumeen **AURKAKO** **INDARKERIA** **EZABATZEAREN ALDEKO EGUNAREN** harira azaroaren 25ean emandako adierazpen instituzionala berrestea.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AIARAKO KUADRILLAREN GENERATION EQUALITY EKIMENA

Presidente andreak jakinarazi du Aiarako Kuadrillako GIZARTE GAIEN, BERDINTASUNAREN ETA KULTURAREN INFORMAZIO BATZORDEAK 2021eko azaroaren 17an 14:00etan egindako ezohiko bilkuran, aho batez onetsi zuela Aiarako Kuadrillak Generation Equality ekimenean parte hartzeko proposamena, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritarraren alde.

Ez da beste eztabaidarik sortu, bozketa egin da eta aho batez **ERABAKI DA**, honako **ERABAKIA** hartzea:

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillak Generation Equality ekimenean parte hartzea onestea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako itun sozial eta herritarraren alde, eta, horretarako, hurrengo bost urteetan honako jarduera-ardatz hauek garatzeko konpromisoa hartzea:

ZE HAR-ARDATZA

• Datu bereziak eta hizkera inklusiboa: Eremu desberdinetako pertsonen datuak daudenean, sexuaren arabera bereizi behar dira, proposatutako gaikako edozein bloketan emakumeen eta gizonen egoera eta posizioa deskribatzeko eskuragarri egon daitezen. Halaber, irudiak eta hizkera modu inklusiboan erabiliko dira.



- Araudia: Kuadrillako berdintasun-planak, orokorrak zein sektorialak, onestea, ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea: Indarkeria matxistaren aurkako plana, indarkeria matxistaren kasuetarako arreta- eta koordinazio-protokoloa, 2030 Agenda, etab.

- Baliabideak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua mantentzea, berdintasun-teknikari espezializatuaren figurarekin, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko beharrezko baliabideak eskuragarri izatea.

- Zeharkakotasuna: Kuadrillako teknikarien eta administrarien arteko koordinazio, lankidetzeta eta eraginerako egiturak sortzea eta sendotzea, genero-ikuspegia lan-prozeduretan txertatzeko, iraunkortasun- eta hizkuntza-irizpideekin batera.

I. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

- Indarkeria Matxistaren aurkako Planari eta Indarkeria Matxista kasuetarako Erakunde arteko Arreta eta Koordinazio Protokoloari jarraikortasuna eta jarraipena ematea. Horrenbestez, jarraipen mahaiak deituko dira urtero.

- Zerbitzuak eta baliabideak hobetu eta/edo sortzea hautemateko, sentsibilizaziorako, prestakuntzarako, arretarako, koordinaziorako eta ordainerako. Kasu horietarako erreferentziatzeko gizarte-langilearen figurarekin jarraitzea.

- Kontuan hartzea indarkeria diskriminazioa sor dezaketen beste egoera batzuekin batera gertatzen denean (degaitasuna, landa aldekoa izatea, pobrezia, migrazioa, adina, etab.) emakumeek zaurgarritasun egoera handiagoa dutela.

II. ARDATZA: GORPUTZAREN GAINEKO AUTONOMIA, OSASUNA ETA SEXU- ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK

- Osasun-arloan emakumeek eta gizonak dituzten behar eta errealitateei buruz sentsibilizatzea eta kontzientziatzea, bai eta aniztasunetik abiatuta emakumeek osasunerako duten eskubideari buruz ere.

- Dependentsia duten eta/edo osasun-arazoak dituzten pertsonak zaintzearen ondorioz emakumeek bizi duten lan-gainkargaren ondorioak ezabatzen laguntzea, ikastaroak antolatzeke haurtzaindegi-zerbitzuak erraztuta eta familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea erraztuta.

- Sexu-hezkuntza integrala sustatzea eta koordinatzea eskola-eremuan, ikastetxeen hezkidetzeta-proiektuaren barruan.

- Gazteei eta helduei ahalduntzen laguntzea, harreman afektiboari eta sexualei lotutako erabakietan autonomia handiagoa izateko tailerrak antolatuta.

III. ARDATZA: JUSTIZIA ETA ESKUBIDE EKONOMIKOAK

- Berdintasuna eraldaketa sozial eta ekonomikorako beharrezko balio gisa aitortzea.

- Zainketak bistaratzea eta horiei balioa ematea. Bizitzaren iraunkortasunerako eta pertsonen ongizaterako oinarritzeko eta ezinbesteko dimentsioa direla aitortzea.

Horretarako, norberaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorako neurriak erraztuko dira, esaterako, laneko sartu-irteera orduak malgututa, beharrezkoa denean eta langileen beharretara egokituta, etxetik lan egitea erraztea lanpostura joatea ezinezkoa denean, eta malgutasunez jokatzeko bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri



egiteko. Era berean, neurri horiek arautu egingo dira kontziliazioa berdintasunez egin dezaten emakumeek zein gizonen, eta ez beti emakumeek.

- Pobreziaren feminizazioa murrizteko sentsibilizatzea eta laguntzea (soldata- eta pentsio-arrakala, gizarte- eta ekonomia-politikak, etab.).

- Emakumeen lanerako sarbidea, baldintzak eta sustapena hobetzea, besteren kontura zein norberaren kontura ari badira ere, goraka datozen sektoreak kontuan hartuta. Horretarako, landa-garapeneko eragileekin eta Kuadrillako sustatzaile ekonomikoarekin zuzenean lan egingo da.

- Genero-ikuspegia txertatzea COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko bultzatutako neurri sozial eta ekonomikoetan, haren eragin berezia kontuan hartuta.

IV. ARDATZA JUSTIZIA KLIMATIKOA

- Koadrilako Ingurumen Zerbitzuarekin koordinatuta lan egitea, aurrez aurre dituzten oztopo ekonomiko eta soziokulturalen ondorioz, emakumeek klima-arriskuen ondorio kaltegarriekiko duten zaurgarritasun handiagoaren inguruan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko.

- Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea emakume askok bizi duten pobrezia energetikoa murrizteko.

- Berdintasuna sartzeko gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-garapeneko estrategietan, eta genero-ikuspegia sustatzea ingurumen-hezkuntzan, hori guztia Kuadrillako ingurumen-teknikariarekin koordinatuta.

- Nekazaritza-ustiategi ekologikoetan emakumeen titulartasuna sustatzea eta lehen sektorean emakumeak egon daitezen eragitea, bai eta landa-munduaren irudi soziala hobetzea ere, urriaren 15eko landa-eremuko emakumeen egunaren inguruko kanpainen bidez.

V. ARDATZA GENERO BERDINTASUNERAKO TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Gaitasun teknologikoen sarbidean, erabileran eta mailan genero-arrakala digitala murrizteko tailerrak antolatzea.

- IKTen bidez emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta ezabatze programak edo ekintzak sustatzea.

VI. ARDATZA MUGIMENDU ETA LIDERGO FEMINISTAK

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiten laguntzea emakume-elkarteetatik eta talde feministetatik, haien eginkizuna aitortuta eta bistaratuta.

- Erakunde politiko, ekonomiko eta sozialetan parte hartzen duten emakumeen eta emakume-taldeen arteko aliantzak eta sinergiak hedatzea.

- Berdintasunean eta ahalduntze feministan prestakuntza handiagoa, emakumeek eta politika publikoetan parte hartzeko dituzten guneek, interlokuzio eta ondorio eraginkorrak sortzeko baldintzak izan ditzaten, Laia Aiaraldeko ahalduntze eskolaren bidez.



• Ikastaroak antolatzea emakumeek erakunde sozialetan, sindikaletan, enpresetan eta erakunde politikoetan presentzia eta protagonismo txikiagoa izatearen arrazoiak ezagutzeko.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KUADRILLAREN EGOITZA TOKIZ ALDATZEA.

Lehendakari andreak Laudioko Udalean onartutako mozioaren berri eman du. Deialdiari XIV. ERANSKIN gisa erantsi zitzaion. Mozio horretan Kuadrillaren egoitzaren kokagunea erabakitzea eskatu zen. KUADRILLEI BURUZKO AZAROAREN 20ko 63/1989 FORU ARAUAK Kuadrillaren egoitza Laudion dagoela jasotzen du. Bere garaian, Kuadrillaren egoitza kokatzeko hiru proposamen jaso ziren Amurrioko, Aiarako eta Laudioko udalen eskutik.

Hainbat bilera egin dira, azkena presidentek biltzarkide-taldeetako bozeramaileekin egindakoa, EH Bildurekin izan ezik, bere iritzia posta elektronikoz eman baitu. Horien ondoren, Kuadrilla osatzen duten talde politikoen artean egoitza Aiarako udalerrian jartzeko adostasuna dagoela ikusi da.

Azaroaren 5ean egindako informazio-batzordean (PRESIDENTZIA, ADMINISTRAZIO-JARDUERA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU-ADMINISTRAZIOAREKIN, AUTONOMIKOAREKIN ETA BESE ORGANISMOEKIN HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK), gehiengoz ONETSI DA honako irizpen hau onestea, aldeko 7 botorekin: (EAJ-PNV 3 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK boto 1, EH-BILDU boto 1, AIARA BATUZ boto 1, eta OKONDO AURRERA boto 1, eta OMNIaren abstentzio-boto 1).

IKUSI DA Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua.

IKUSI DIRA Aiarako Kuadrilla osatzen duten udalek aurkeztutako proposamenak.

ERABAKI DA

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillaren egoitza Aiarako udalerrian dago.

BIGARRENA.- Aiarako Udalarekin batera, Aiarako Kuadrillaren egoitza zein udal-eraikinetan edo ekipamendutan kokatuko den zehazteko beharrezkoak diren jarduketa guztiak abian jartzea.

HIRUGARRENA.- Presidentea gaitzea, behar diren jarduerak burutu ditzan, Batzar Nagusiek 63/1989 Foru Arauaren aldaketa onets dezaten, Laudioko udalerriko kuadrillaren egoitza Aiarara aldatzeko.



Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) Kuadrillaren egoitza Laudion zela adierazi du, eta oso ona izango litzatekeela Laudion egotea, baina beste inon izatekotan, Aiara izango litzatekeela toki egokiena, Kuadrillari izena ematen dioelako eta erdigunean dagoelako. Ez dago akordio horren aurka, presidente andreak Foru Araua aldatzeko jardun behar du, eta egoitza Laudion ez egotekotan bere taldea ez litzateke Aiara ez den beste toki batean jartzearekin ados egongo.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du urrats hori berandutzen ari zen gertakari historikoa dela. Lurralde-orekan sakondu du, administrazioek ez baitute egon behar biztanle gehiago dauden lekuetan. Eta eskerrak eman dizkie talde politikoei egindako lanagatik eta Presidente andreaki Kuadrillaren egoitza Aiaran egoteko beharrezko adostasuna lortzeagatik.

Ez da eztabaidarik egon eta, gehiengoz **ERABAKI DA**, honako **ERABAKI** hau hartzea, aldeko 25 botorekin, (EAJ-PNV 12 boto, EH-BILDU 9 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK 2 boto, OKONDO AURRERA boto 1, AIARA BATUZ boto 1) eta abstentzio 1 (OMNIAren boto 1),

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillaren egoitza Aiarako udalerrian dago.

BIGARRENA.- Aiarako Udalarekin batera, Aiarako Kuadrillaren egoitza zein udal-eraikinetan edo ekipamendutan kokatuko den zehazteko beharrezkoak diren jarduketak abian jartzea.

HIRUGARRENA.- Presidentea gaitzea, behar diren jarduerak burutu ditzan, Batzar Nagusiek 63/1989 Foru Arauaren aldaketa onets dezaten, Laudioko udalerriko Kuadrillaren egoitza Aiarara aldatzeko.

8.- 2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA

Presidente andreak jakinarazi du deialdiari 2021eko Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionalaren proposamena erantsi zaiola, XV. ERANSKIN gisa.

Población Martínez andreak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) azaldu du testua positiboa dela, baina oraindik asko falta dela normaltasunera iristeko eta garrantzitsua dela aisialdian euskara erabiltzea eta erakundeek erabiltzea erraztea.

Alamillo Udatea jaunak (talde politikoko bozeramaile gisa) gogorarazi du abenduaren lauan euskararen eguna ospatuko dela Luiaondon.

Ez da horri buruzko eztabaidarik sortu, bozkatu egin da eta aho batez **ERABAKI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:



LEHENENGOA: Euskararen egunerako adierazpen instituzionala onestea.

9.- AP-68ari BURUZKO MOZIOA

Lehendakariak jakinarazi du maiatzaren 14an jaso zela AP-68ari buruzko mozio-eskaera, Alaña Arrinda eta Canibe Lices jaun-andreek aurkeztu zutena (deialdiari erantsi zaio XVI. ERANSKIN gisa). Ondoren, Arabako Foru Aldundiak eman beharreko diru-laguntza adostu zen (deialdiari XVII. ERANSKIN gisa erantsita). Azaroaren 5ean egindako informazio-batzordean (PRESIDENTZIA, ADMINISTRAZIO-JARDUERA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU-ADMINISTRAZIOAREKIN, AUTONOMIKOAREKIN ETA BESE ORGANISMOEKIN HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK), Alaña Arrinda jaunak mozioaren zioak azaldu zizkien batzordeko kideei. Azalpen horren ondoren, OMNIA, AIARA BATUZ eta OKONDO AURRERA talde politikoez mozioa ontzat eman dute.

Batzorde horretan, **UKO EGITEN ZAIO**, gehiengoz, MOZIO hori onesteari aurkako 4 botorekin, EAJ-PNV 3 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK boto 1, EH-BILDU abstentzio bat, eta aldeko hiru boto OMNIA boto 1, AIARA BATUZ boto 1 eta OKONDO AURRERA boto 1:

LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillak Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei eskatzen die akordiora irits daitezen, Arabako eta Bizkaiko lagun guztientzako finantzaketa-eredu justuagoa eta bidezkoagoa arautzeko, AP-68 autobidearen ibilbide partekatuari dagokionez (Bilbo-Altube).

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillak, mugakide dituen lurraldeen arteko komunikazioa eta gizarte-kohesioa errazte aldera, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio doakotasuna txerta dezala Bilbotik Orozkora doan zatian (3. irteera).

HIRUGARRENA.- Aiarako Koadrilak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio hobari-sistemaren egungo zenbatekoak % 85era arte handitzeko, hilean 40 bidaiatik aurrera, bai Araban, bai Araba eta Bizkaia arteko joan-etorrietan, hileko 30 euroko gehieneko tarifa lauarekin.

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta gaur egun AP-68 autobidea Europako laugarren autobiderik garestiena dela, Aiarako Kuadrillak, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio indarrean dagoen tarifaren prezioari % 50eko deskontua ezar diezaiola, Arabako bizilagun guztientzat, Altubeko geltokiaren eta Bilboko geltokiaren artean egindako joan-etorriko ibilbide guztietan, sarrera/helmuga berean, ordubetetik gorako eta 24 ordutik beherako tartean.

BOSGARRENA.- Aiarako Kuadrillak, ezbehar-tasa murrizte aldera, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Altubeko eta Bilboko geltokien artean % 75eko deskontua ezar diezaiola lau ardatzeko garraio astun eta arriskutsu guztiari.



SEIGARRENA.- Aiarako Kuadrillak Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei eskatzen die lehen azaldutako eskaerak ahalik eta lasterren gauza ditzatela, Aiaraldeko bizilagunok historikoki jasan dugun lurralde-diskriminazioa behin betiko eteteko.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) eskatu du mozioa aurkeztu eta aretoan dauden lagunei hitz egiten uzteko.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa) azaldu du talde politikoei eman behar zaiela hitza, eta **Romero Campos jauna** bat etorri da horrekin (Euskal GIZARTE-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa).

Ghiro jaunak adierazi du Kuadrillen Batzarrak arautzen dituen arauak ez duela aurreikusten batzordekide ez diren beste pertsona batzuen parte-hartzea; batzordeetara joateko baimena ematen zaie.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) berretsi du interesgarria dela herritarrei ekitaldi publiko batean hitza ematea, eta araua aldatzeko eskatu du. Pena ematen dio mozioa talde politiko guztiek batera ez antolatzeak. Mozioaren arrazoi batzuk azaldu ditu, besteak beste, 1996an talde inbertitzaileak errentagarritasun handia lortu zuela eta emakida 2026ra arte luzatu izana zenbateraino ilogikoa den eta ez lukeela ulertuko luzatzen jarraituko balitz. Europako dinamikak ulertzen ditu, baina ez du ulertzen batzuek ordaintzen jarraitzea eta beste batzuek inoiz ez ordaintzea, beste autobide batzuetan ez da inoiz bidesaririk egon. Mozioa lauso geratzen da adostasuna nahi duelako. Ez da esan nahi ordainpekoa izan behar ez duenik, kanpotarren joan-etorria egon badagoelako; lurralde historikoetakoei eman behar litzaieke hobaria. Bilbora errepidez joateko aukerek kontsumoa eta emisio kutsatzaileak areagotzen dituzte. Bukatzeko, esan du doakoa izan beharko lukeela Orozkoraino, A8a Usansoloraino eta Txorrieriko korridoreraino den bezala. Bukatzeko Alaña jaunari hitza ematea gustatuko litzaiokeela errepikatu du.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) zehaztu du plataformek Batzar Nagusietara joan eta hango batzordeetan har dezaketela hitza, baina ez Osoko Bilkuran. Gainera, aspaldian ari dira eskualdeko udalerrriak mozio hori eztabaidatzen eta Udalek ezagutzen dituzte talde sozialistaren argudioak. Arabako Foru Aldundian bi hamarkada daramate indarrean sozialistek martxan jarritako hobariak, Bizkaian baino gehiago. Denok nahiko genuke handiagoak izatea, baina aurrekontuak ez du horretarako aukerarik ematen. Batzar Nagusietan ponentzia bat dago gai hori jorratzeko, bai eta Arabako gizarteak mugikortasunari, gaitasun handiko sareen etorkizuneko finantzaketari, obra berriei eta hobarien politikari nola aurre egingo dieten eztabaidatzeko ere.

Berganza Urruela jaunak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) adierazi du bere jarrera hainbat udalerritan azaldu dela, beti hobarien alde, baina ez doakotasunaren alde. Larrialdi klimatikoak garraio publikoa jartzen du mahai gainean, eta ez pribatua. Garraio publikoaren aldeko argudio gehiago eman ditu.



Rodríguez Orue jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa), mozioa hainbat udaletan landu denez, lekuz kanpo dagoela azaldu du. Hobariak egon badaude eta doakotasunak ez luke eredia izan behar. Emakidak irauten duen bitartean, doakotasunak kostu handia izango luke. Zalantza du emakida luzatuko den edo ez, eta, gainera, garraio publikoa badago, pribatua baino askoz hobea, gainera. Doakotasunak ez du ezbehar-kopurua hobetzen; Alaren kasuan, igo egin da.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) esan du Gasteizerako egungo garraio publikoaren maiztasuna ez dela egokia. Ingurumenerako onena auto guztiak elektrikoak izatea izango litzateke, bitartean zerbait egin behar da. Ez dago ekitaterik Lurralde Historiko osoan. Hobariak ez du gora egin, % 75etik % 45era igaro da, eta orain gora egin du. Denbora asko igaro da mozioa aurkeztu zenetik, ados dago etorkizuna garraio publikoa dela, baina ekin egin behar zaio. Emakidadunaren urtebeteko irabaziekin hogeitun urtean osorik asfalta daiteke. Garraio publikoa ez da egokia hainbat gauzatarako, azpiegitura amortizatuta dago eta enpresa pribatu bat etekinak ateratzen ari da, euskal herritarren artean desberdintasuna dago eta ez du guztientzako doakotasuna eskatzen, Arabarrentzat bakarrik.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du bere talde politikoa dela arloa zuzentzen duena eta doakotasuna begi onez hartuko litzatekeela, baina aurrekontua, bigarren handiena izan arren, mugatua dela. Logikoena litzateke Batzar Nagusietan ponentzia bat deitzea, talde guztiek adituei entzun ahal izateko. Arabako errioxarrek ere autobideak ordaindu behar dituzte portu bat saihesteko. Alaña jaunak batzordean azaldu du Errioxan eta Aragoi nola egiten den hobaria. Aragoiko aurrekontua 7.500 milioikoa da, Errioxakoa 1.200 milioikoa eta Arabakoa 550 milioikoa, eta horietatik % 50 Gizarte Ongizaterako da, eta, bigarrenik, azpiegituretarako. Egoera jasanezina da etorkizunari begira, eta hobariak hobetu egin dira.

Rodríguez Orue jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa) azaldu du 7/8 bidaiarekin % 60koa dela egungo hobaria. Emakidadunari ordaintzea bideraezina da, eta garraio pribatua areagotzea ekarriko du soilik, eta publikoa sustatu beharko litzateke.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du finantzaketa-eredua egokitu daitekeela Arabako Foru Aldundiak ordainduta, hobariak arabarrek eta bizkaitarrek jaso ez ditzaten.

Ez da eztabaidarik sortu eta bozkatu eginda. **UKO EGIN ZAIO**, gehiengoz, honako **ERABAKI** hau hartzeari, aurkako 15 botorekin: (EAJ-PNV 13 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK 2 boto), 9 abstentzio (EH-BILDU 9 boto), eta aldeko 3 boto (OMNIA boto 1, OKONDO AURRERA boto 1 eta AIARA BATUZ boto1):



LEHENENGOA.- Aiarako Kuadrillak Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei eskatzen die akordiora irits daitezen, Arabako eta Bizkaiko lagun guztientzako finantzaketa-eredu justuagoa eta bidezkoagoa arautzeko, AP-68 autobidearen ibilbide partekatuari dagokionez (Bilbo-Altube).

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillak, mugakide dituen lurraldeen arteko komunikazioa eta gizarte-kohesioa errazte aldera, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio doakotasuna txerta dezala Bilbotik Orozkora doan zatian (3. irteera).

HIRUGARRENA.- Aiarako Kuadrillak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio hobari-sistemaren egungo zenbatekoak % 85era arte handitzeko, hilean 40 bidaiatik aurrera, bai Araban, bai Araba eta Bizkaia arteko joan-etorrietan, hileko 30 euroko gehieneko tarifa lauarekin.

LAUGARRENA.- kontuan hartuta gaur egun AP-68 autobidea Europako laugarren autobiderik garestiena dela, Aiarako Kuadrillak, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio indarrean dagoen tarifaren prezioari % 50eko deskontua ezar diezaiola, Arabako bizilagun guztientzat, Altubeko geltokiaren eta Bilboko geltokiaren artean egindako joan-etorriko ibilbide guztietan, sarrera/helmuga berean, ordubetetik gorako eta 24 ordutik beherako tartean..

BOSGARRENA.- Aiarako Kuadrillak, ezbehar-kopurua murrizte aldera, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Altubeko eta Bilboko geltokien artean % 75eko deskontua ezar diezaiola lau ardatzeko garraio astun eta arriskutsu guztiari.

SEIGARRENA.- Aiarako Kuadrillak Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei eskatzen die lehen azaldutako eskaerak ahalik eta lasterren gauza ditzatela, Aiaraldeko bizilagunok historikoki jasan dugun lurralde-diskriminazioa behin betiko eteteko.

10.- EH BILDU TALDE POLITIKOAK INTERES PUBLIKO HANDIAGOKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA

Presidente andreak azaldu du deialdiari XVIII. ERANSKINA erantsi zaiola, EH Bildu biltzarkide-taldeak aurkeztutako mozio-proposamena jasotzen duena.

San José Martínez jaunak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) aurkeztutako mozioa irakurri du.

"Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketa baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren



31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, IPGP edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura "Interes Publiko Goreneko Proiektu" izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegeiak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat, etab...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, herritarren parte-hartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie IPGPak, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren. Toki-erakundeen prebentzio-kontrolerako ahala ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Orozkoko Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako MOZIO hau aurkeztu du Aiarako Kuadrillan eztabaidatu eta onesteko:

1. Aiarako Kuadrillak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen balizko aldaketaren bidez "Interes Publiko Goreneko Proiektuen" figura jasotzearen aurka dagoela, baita gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka ere.
2. Aiarako Kuadrillak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Arabako Toki-erakundeen interesak defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.
3. Aiarako Kuadrillak mozio honen edukia Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Eusko Legebiltzarrari bidaltzea erabaki du.

Hainbat arrazoiengatik proposatu dela adierazi du:

- Lege horren atzean Eusko Jaurlaritzak bere proiektuak lehenesteko asmoa dago.
- Orain arte, prozedurak funtzionatu du, kasu batzuetan herritarren parte-hartzearekin. Zergatik aldatu behar da ondo dagoena, Kuadrillak toki-erakundeak defendatu behar ditu.



-
- Modua ez da beste lege bat aldatzea.

Horregatik, helburuak eta jarraitutako prozedurak aldatu egin behar dira.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) esan du ez direla tokiko autonomia eta proiektu publikoak aurrez aurre jarriko. 61. zuzenketa oso salbuespeneko kasuetan baino ez da aplikatuko, oso bermatzailea da eta ekimen publikoz sortutako proiektuetan bakarrik. Aldatu egiten da, legeak zaharkituta geratzen direlako eta Legebiltzarrean aholkulariak daudelako. Legebiltzarrean eztabaida bat galtzen denean, ez da beherantz jo behar, eskuduna Legebiltzarra baita. Udal batean onetsitakoa bezain demokratikoa da Legebiltzarrean onesten dena, eta Bilduren arabera hori tokiko autonomiaren eta demokraziaren aurkako eraso bada, hori demokraziaren kontzeptua laidoztea da. Udalerriari ez ezik, Euskadiri ere eragiten dioten interes publikoko proiektuei buruz ere ari da zuzenketa, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak zehazten ditu. Figura hori badago Estatuko legerian eta beste autonomia-erkidego batzuetan, Nafarroan barne, eta han ez da horren aurkako ezer esan. Ekonomia zirkularraren eta trantsizio energetikoaren eraginez onesten den unean datoz bat, baina interes orokorra, publikoa eta ingurumenekoa kontuan hartuta. Gobernuen, Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren kudeaketa sozialista baino adibide hoberik ez dago.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du EAJ/PNVk azkenean aurkeztu ez duen mozio bat bidali dela posta elektronikoz, eta aurreko batzarretan bere taldeak aurkeztutako mozioekin gertatu dena gogora ekarri nahi duela. Mozioaren alde agertu da. Interes publikoaren kontzeptuak izua sortzen dio, Laudion CACUa aldatzea asko kostatu zitzaizela gogoratu du. Tokiko autonomiari eutsi behar zaio, eta ez, nahi denean ezereztu edo aldatu.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa) azaldu du ez dela udal-autonomia bertan behera utzi nahi. Bozeramaile sozialistak azaldu du. Zuzenketa hori aplikatu dakiekeen proiektuok estu araututa egon behar dute eta legeak eguneratu egin behar dira. Estatuan eta Nafarroan badago, eta horrelako kasuak gerta daitezke eta gertatzen ari dira. Guztiok gaude proiektu batzuen alde, baina ez gure etxepean bai eta ondokoan ez. Justifikatuta dauden gizarte- eta ingurumen-intereseko proiektu zehatzak dira oso. Talde batzuek udal-autonomia nahi dutenean defendatzen dute. EH Bilduk Legebiltzarreko batzordean parte hartzen du.

San José Martínez jaunak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) adierazi du mozio honek ez duela zerikusirik egiten denarekin, gauzak egiteko moduarekin baizik. Hori aspalditik dator, proiektuak egin dira, baina 40 urtean ari dira esaten beste modu batera funtzionatu behar dela, orain 2030 Agenda, aurretik egindakoaren gaineko autokritikarik egin gabe. 2019an egin zen legea. 2 urte igaro gabe, komodin bila dabilta, zerbait ahaztu bada ere. Demokrazia parte-hartzailea eta demokrazia



ordezkatzaila desberdinak dira. Proiektu batzuetan jendeak ez du parte hartzen, eta beste leku batzuetan hala egiten bada ere, horrek ez du esan nahi onena denik.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) esan du ez duela imajinatzen EAJk zer esango lukeen Estatuak eskumen autonomiko bat aldatuko balu. Hark agintzen duen lekuan beherantz aldatzen da. Hemen defendatzen ari dena da udal-esparrutik autonomia-esparrura egitea. Bat dator demokrazia parte-hartzailearen eta ordezkariaren arteko desberdintasunarekin.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du, legeak egiterakoan, badagoela tokia elkarreentzat eta badutela aukera agertu eta bere egoera azaltzeko. Gainera, badago lotura demokrazia parte-hartzailearen eta ordezkariaren artean.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa) esan du aplikatu beharreko Europako araudia dagoela, eta Estatuak Aurrekontu Orokorren Legean Estatuak beste lege batzuk aldatzen direla.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politikoko kide gisa) esan du ez dela Kuadrillaz hitz egiten ari.

Ez da eztabaidarik egon eta bozkatu egin da. **UKO EGIN ZAIO**, gehiengoz, honako ERABAKI hau onesteari, kontrako 15 botorekin (EAJ-PNV 13 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK 2 boto), eta 12 boto aldeko (EH-BILDU 9 boto, OMNIA boto 1, eta OKONDO AURRERA boto 1 eta AIARA BATUZ boto 1):

LEHENENGOA- Aiarako Kuadrillak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeren balizko aldaketaren bidez "Interes Publiko Goreneko Proiektuen" figura jasotzearen aurka dagoela, baita gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka ere.

BIGARRENA.- Aiarako Kuadrillak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Arabako Toki-erakundearen interesak defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.

HIRUGARRENA.- Aiarako Kuadrillak mozio honen edukia Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Eusko Legebiltzarrari bidaltzea erabaki du.

11.- INFORMAZIO-BATZORDEETAN EH-BILDU TALDEKO KIDEEN ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

Presidente andreak jakinarazi du EH Bildu taldeko bozeramailearen idazki baten bidez honako aldaketa hauek ezarri direla informazio-batzordeetan.



1.- OGASUNAREN, FINANTZEN, AURREKONTUEN, PROMOZIO EKONOMIKOAREN, ENPLEGUAREN ETA BERRIKUNTZAREN ETA TURISMOAREN INFORMAZIO BATZORDEA: AITOR BURGOA MARTÍNEZ batzarkideak beteko du titularraren postua, José María Gutiérrez Anguloren ordeaz.

12.- ONARTUTAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Presidenteak azken bilkuratik hona onetsitako Presidentetza-Dekretuen berri eman du, eta hauek dira:

29/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa; maiatzeko nomina.

30/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 26koa; Dendatik Etxera kredituak gaitzea.

31/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 26koa; banku-komisioen kredituen transferentzia.

32/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 28koa; fotokopiagailuaren *rentingeko* kontratua amaitzea.

33/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 14koa; Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria kontratatzea

34/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 18koa; ekaineko nomina eta aparteko ordainsaria.

35/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, ekainaren 29koa; minipuntua desmuntatu eta muntatzeko adjudikazioa.

36/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 5ekoa; GG eskaera eta zerbitzuak, 3. hiruhilekoa.

37/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 5ekoa; udal hondakinen 3. hiruhileko kopuruak eskatzea.

38/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 9koa; gizarte-langilearen lanaldia handitzeko kredituen gaikuntza.

39/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 14koa; Eskualdeko Enplegu Plana diru-laguntza eskatzea.

40/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 16koa; ekipamendu informatikoak erosteko kreditu gehigarriak.

41/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 16koa; ordenagailua erosteko adjudikazioa.

42/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, uztailaren 16koa; uztaileko nomina.

43/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abuztuaren 6koa; legezko datu-basean harpidetza egitea.

44/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abuztuaren 6koa; abuztuko nomina.

45/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 9koa; AFAko prestakuntzarako diru-laguntzen gaikuntza.

46/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 17koa; indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko zerbitzua ezartzeko udalen ekarpenak eskatzea.



-
- 47/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 17koa; indarkeria matxistaren biktimen protokolo-mahaiak adjudikatzea.
- 48/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 17koa; 2012eko kutxa asteklima trukea adjudikatzea.
- 49/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 22koa; kontrataziorako laguntzak ordaintzea.
- 50/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 23koa; aldizkaria sustatzeko adjudikazioa.
- 51/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, irailaren 28koa; iraileko nomina.
- 52/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 7koa; turismoan inbertitzeko AFaren diru-laguntzak gaitzea.
- 53/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 7koa; eskualdeko eskola-agendaren 2023aren ekarpenen kredituak gaitzea.
- 54/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 8koa; langileak ordezkatzeko ekarpen-kredituak gaitzea.
- 55/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 8koa; bankuko komisioetako kredituen transferentzia.
- 56/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 8koa; AFaren berdintasunerako diru-laguntza kredituak gaitzea.
- 57/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 8koa; GG eskaera eta zerbitzuak, 4. hiruhilekoa.
- 58/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 13koa, Bilboko adiskidetze sozialeko 10. ekitaldiaren ordezkari-tza.
- 59/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 13koa; Gasteizko adiskidetze-judizio sozialeko 1. ekitaldiaren ordezkari-tza.
- 60/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 21ekoa; Bilboko 10. ordezkari-tza soziala 145.
- 61/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 21ekoa; Bilboko 10. ordezkari-tza soziala 110.
- 62/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 25ekoa; azaroko jarduerak sustatzeko kanpainaren adjudikazioa.
- 63/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 25ekoa; Txakolinaren Ibilbidea seinaleen eta standaren adjudikazioa.
- 64/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 25ekoa; euskara-jardueretarako ekarpenen kredituak gaitzea.
- 65/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 25ekoa; ingurumen-proiektuetako ekarpenen kredituak gaitzea.
- 66/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 26koa; urriko nomina.
- 67/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 29koa; puntu turistikoaren analisi eta seinaleen adjudikazioa.
- 68/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 29koa; berdintasun-topaketaren adjudikazioa.
- 69/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urriaren 29koa; TXAKOLI-BIZI adjudikazioa - Kopia.
- 70/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 4koa; Eskualdeko Enplegu Plana 21-22 lizitazioa onestea.
- 71/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 4koa; Eskualdeko Enplegu Plana 21-22 hautapen-adjudikazioa.



-
- 72/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 4koa; Bilboko 6. ordezkari-taldea 169.
73/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 15koa; hiri hondakinen 4. hiruhilekoko ekarpena eskatzea.
74/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 15koa; Gasteizko CASER abokatuaren adiskidetzeko-judizio Sozialerako 1. ekitaldiko ordezkari-taldea.
75/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 17koa; berdintasunerako irakurketa taldea adjudikatzea.

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politikoko kide gisa) bere taldeak ekainean Gizarte Ongizateko Batzordean aurkeztutako mozioaren ibilbideaz galdetu du. Mozio hori Laudioko txertaketa guneari buruzkoa zen eta ekainean bertan onetsi zen.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa) erantzun du Laudioko alkate gisa mozioaren galdera eta eman zioten ahozko erantzuna honako hau izan zela: txertatu gabeko biztanle gutxiago zegoelako kendu zela, falta direnak erraz lekualda daitezkeela eta ez dagoela langile nahikorik.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politikoko kide gisa) galdetu du zer egiten den Kuadrillan aurkeztu eta onetsitako mozio batekin. Kasu honetan, ekainean onetsi zen eta urrian gogoratu da, Gizarte Ongizateko beste batzorde batean galdetu denean.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du EAJ/PNV taldearen mozioa ez dela aurkeztu azkenean, nahiz eta e-mailez bidali den. Larria da onetsitako mozio bat ez sartzea.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politikoko kide gisa) erregu egin dio Presidenteari, irizpena emandako mozio bat Batzarrari aurkeztu gabe berriro gera ez dadin.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, lege-aginduz, goian adierazitako eguneko **15:00** direnean, bukatutzat eman da bilkura. Akta hau presidente andreak sinatu du eta nik, behin-behineko idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

PRESIDENTEA: Izpta.: Encina Castresana Astarloa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA Izpta.: Gianfranco Ghio Alonso